BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

2838

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 22koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2012. urteko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen Aginduaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen Balorazio Batzordearen kideen izendapena argitaratzen duena.

Ikusirik Kulturako sailburuaren 2012ko apirilaren 24ko Agindua, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2012. urteko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Kontuan izanda aipatutako Aginduaren 11. artikuluak adierazten duela, modalitate bakoitzera aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko dela, eta kideen izendapena eta haren osaeraren argitaratzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez egingo dela.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzordekideak (hiru aditu profesional, aztertu beharreko laguntza-modalitateekin zerikusia dutenak):

Rosa Abal Martínez anderea.

Ainara Martin Blanco anderea.

Sergi Diaz Plaza jauna.

Idazkaria: Tamara Alvarez Fernandez (Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria).

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 22a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.